

MERKATUAREN SEGMENTAZIOA

Argi dago edozein enpresaren motorra bezeroak direla, hau horrela izanda, ezinbestekoa da bezeroan arreta jartzea, berak izango duelako enpresaren arrakastaren azken hitza. Honetarako ezinbestekoa da ere gure bezeroa nolako izango den zehaztea.

Lehenik eta behin, gure enpresaren merkatuaren kokapenari muga jartzea ezinbestekoa da, gure ustez erabaki egokiena Goierrin kokatzea da. Horrela gure bezero nagusienak, edo denak, goierritarrak izango dira. Hasieran kokapen horretan zentratuko gara, baina arrakasta handia izango balitz Euskal Herrian kokatzea planteatuko genuke. Baina, lehen esan bezala, hasieran Goierrin kokatuko gara.



Gure zerbitzua ikastoletan, tabernetan, zinemetan, liburutegietan... eta horrelako beste hainbat tokietan ezarriko dugunez, gure bezeroak 10 urtetik gorako pertsonak izango dira. Ikastoletan 10 eta 18 urte bitarteko nerabeek erabiliko dute gure zerbitzua, eta zenbait irakaslek ere. bestalde liburutegietan, 10 eta 30 urte bitarteko pertsonentzat bideratuta egongo da; izan ere, hauek erabiltzen dute liburutegia gehien. Tabernetan; berriz, 16 eta 60 urte bitarteko jendearentzat dago pentsatuta, hauek direlako tabernetako bezero nagusiak. Bukatzeko, zinemetan 10 eta 60 urte bitarteko jendearentzat izango da, hauek direlako zinemara gehien joaten direnak. Nahiz eta, adin muga hauek jarri, hau gomendio bat da, eta ez da berrigorrezkoa adin tarte horretakoa izatea. Gure zerbitzua edonork erabili dezake, betiere 10 urte baina gehiago baditu. Lehen esandako zerbitzuen edozein erabiltzailek erabili dezake gure zerbitzua.



Gure egitasmoa 50 bat enpresatan (lehen esan bezala, ikastolak, tabernak, zinemak, liburutegiak...) ezartzea espero dugunez, horietako edozein bezerok erabili dezake gure produktua.